



harkua bete herna

>> ANTZERKIA

EMAKUME ZIENTZIALARIAK HIZPIDE DITUEN ANTZEZLANA AURKEZTU DU EIDABEK

Gaztetxo eta familiei zuzenduta, Eidabek aurreiritziakin apurtzeko antzezlan berria aurkeztu du.

Testua: PREST!

Argazkiak: Eidabe

Piztu emakumeon energia du izenburu Imanol Ituñok zuzendutako lan berria. Emakume zientzialariak baino, emakumeak ere zientzialariak izan daitezkeela erakustea da obraren xede nagusia. Izan ere, Ituñoren esanetan “aurreiritziak gaindituta ditugula pentsatzen dugun arren, badira oraindik azaldu eta erakutsi beharreko kontuak”, eta horretara dator Eidabekin batera ondutako antzerkia. “Eskoletan oraindik badira gizon zientzialariak eta emakume erizainak marratzen dituzten ikasleak, eta antzerki hau baliatu nahi dugu ere bakoitzak nahi duela ikas dezala adierazteko. Gainera antzerkiak Marie Curiek bizitakoarekin paralelismo moduko bat egiten du. Curie zientzialariari hasiera batean ez ziotelako kimika bere hizkuntzan ikasten utzi eta hainbeste borroka egin ostean bi Nobel sari eskuratu zituen”.

Hasiera batean Mari Curie zientzialariaren inguruko biografia izango zela azaldu du Ituñok, gerora ordea, gaztetxoentzako zerbait “erakargarriagoa” izatea era-

baki zuten “ez genituelako ikusleak dokumentazio datuekin zoratu nahi”. Obra, zientzia kongresu batean kokatzen da eta eszenografiak horretan ere lagunduko du zuzendariaren arabera: “kongresuetan jartzen dituzten atrila dago, baita kolore korporatiboa duen logotipo bat ere”. Ikusleek, kongresu hartara doazen zientifikoen papera betetzen duten bitartean, oholtza gainean agertuko den zientzialaria emakumea izango da. Gidoiak emakumea beharrean gizona espero zutela azalduko du eta une horretatik aurrera, kongresua atzean utzi eta antzerkiari bidea emango diote.

Piztu! emakumeon energia antzerkia Eidabek ekoiztitakoa da. Zuzendaritza eta gidoia Imanol Ituñok egin ditu eta Tania Fornieles eta Nahikari Rodriguez izango dira bi antzezleak. Eszenografia Maria Casanuevaren eskutik doa eta argazkietaz Ilara arduratu da. Azkenik, jantziak La Rucaren eta Eidaberen ardura izan dira.



Piztu Emakumeon Energia antzezlanaren irudi bat.